

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**202. zenbakia****Data 2000-10-24****16610 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA
ARETXABALETAKO UDALA****Enpresaritza ekimen berrietarako diru laguntzen araudia aldatzea. Behin betiko onespena.***Iragarkia*

Uztailaren 26an izandako Osoko bilkuran enpresa ekimen berriei laguntzeko Udal ordenantza aldatzea erabaki zen. 30 eguneko jendaurreko epean murtzilorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, honako aldaketak behin betikoz onartu direla ulertzen da:

2. artikulua. «Onuradunek bete beharreko baldintzak».

—Kendu:

Gipuzkoako INEMen Lurralde Zuzendaritzak Enplegu Ekimen Lokaltzat izendatuak izatea.

—Sartu:

«ELMren, ELA, edo Kooperatiba Elkartearen izaera juridikoa hartzea»ren ondoren.

«E.M edo E.A.aren izaera juridikoa hartzea, baldin eta sustatzaile guztiak enpresa berrian lan egiten badute eta betebeharrak hau, egoki diren Gizarte Segurantzaren egin beharreko alta eta kotizazioekin frogatzen badute».

3. artikulua. «Dirulaguntza xede izango den Egitatea».

—Aldatu:

Bigarren lerroaldia, ondoren adierazten den moduan geratuko dena:

«Aretxabaletako Udalaren ustetan, eta duten izaera berritzaile, eta aberastasun eta enplegu sortzailearengatik Interes Sozioekonomikoko Enpresa Ekimentzat jotako enpresa berrien sustatzaile izango diren, E.L.M.aren E.A.M.aren nahiz Kooperatiba Elkartearen modu juridikoa hartzen duten pertsona juridikoak, eta hala badagokio E.M edo E.A.aren modua hartzen dutenak».

7. artikulua. «Aurkeztu beharreko dokumentazioa».

—Kendu:

«INEM ek Enplegu Ekimen Lokaltzat izendatzea».

Aretxabaleta, 2000ko urriaren 5a.—Anjel Bergaretxe Agirregabiria, Alkatea.

(1287) (10574)